



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2024ko APIRILAREN 30ean EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2024ko apirilaren 30ean, arratsaldeko 20.05etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATE ANDREA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Pedro Maria IZAGIRRE SARASOLA (Asteasu Batuz, AB)
Aitor USANDIZAGA IZAGUIRRE (Asteasu Batuz, AB)
Amaia AGIRRE ARRASTOA (Asteasu Batuz, AB)
Xabier ROTETA ERKIZIA (Asteasu Batuz, AB)
Iosu ARRIKARTE OTEGUI (Asteasu Batuz, AB)
Iosu OMEÑACA ALCORTA (Asteasu Batuz, AB)
Aitziber EGAÑA CALLEJO (EAJ/PNV)

BITARTEKO IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute:

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDIA:

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2024.02.27ko Udalbatzarraren akta.**
- **2024.03.21eko Udalbatzarraren akta.**

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2024.urtekoak (045-123)**

3. 2023ko Aurrekontu Orokorren likidazioa eta 2023ko Lege Ingerak/Eragozpenak: Udalbatzarrari komunikazioa egitea.

4. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2024.02.27ko Udalbatzarraren akta.**
- **2024.03.21eko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 9 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Usandizaga, Agirre, Roteta, Arrikarte, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu akta onartu du.

BIGARREN PUNTUA

Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2024.urtekoak (045-123)**


Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA

2023ko Aurrekontu Orokorren likidazioa eta 2023ko Lege Ingerak/Eragozpenak: Udalbatzarrari komunikazioa egitea.

Idazkariak hitza hartu du. Martxoaren 18ko 2024/081 Alkatetza Dekretuaren bidez, udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioa onartu da; horrekin batera, urte horretan Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko lege-eragozpenak (erreparoa/oharrak) jakinarazi behar zaizkio Udalbatzari eta, ondoren, Euskadiko Kontu Auzitegiari. Hau da dekretu horren laburpena:

Lehena.- Udal honen 2023(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2023-12-31n:		1.860.602,11
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		951.889,44
Aurrekontuko zordunak :	945.789,85	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	6.099,59	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		294.315,81
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	135.237,14	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	159.078,67	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		2.518.175,74
5.- Saldo kobragaitzak:		6.303,75
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		29.477,24
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		2.482.394,75

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	667.168,57
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-14.544,20
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	731.044,10
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-29.477,24
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.354.191,23

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	461.636,50
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	187.676,40

SINAfcc4d814-abb1-4d3c-8bcb-75a129a04ad4

3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):

649.312,90

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Espedientean Idazkaritzako txosten ekonomikoa jaso da, eta horrekin batera idazkaritzak aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa ere jaso da; 2023 urtean arau fiskalak eten dira.

Era berean, 2023 urtean Bitarteko Idazkariak eginiko eragozpen hauek egin zituen:

- Eragozpena 2023/01.
- Eragozpena 2023/02.
- Eragozpena 2023/03.

Idazkariak hitza hartu du: eragozpen horiek likidazioarekin batera udalbatzarrera ekarri dira, legez egin behar den moduan.

Alkate andreak hitza hartu du: eginiko erreparoen aurrean, berari dagozkion justifikazioak egin zituen.

Beraz, Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioa onartu eta gero, urte horretan Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko lege-ingerak (erreparoa/oharrak) helarazi zaizkio Udalbatzarrari. Segidan, Euskadiko Kontu Auzitegiari jakinaraziko zaio.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

LAUGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.

Alkate andreak hitza hartu du. Aste buru honetan Santa Kruzeko jaiak ospatuko dira. Herritaren taldea sortu da, Udalarekin lankidetzan aritzeko.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Era berean, Udaleko Brigadako langilea den Inaxio Tapia jauna jubilatu da, eta igandean agurra eta eskertza eskainiko zaio; hilaren 18an, berriz, bazkaria egingo dugu Iturriondo jatetxean.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:40 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Bitarteko Idazkariak.

Asteasun, 2024ko apirilaren 30ean.

Bitarteko Idazkariak

Jon Gil Beltza



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Udalbatzarreko akta 2024.04.30

CSV/EKS:

SINAFcc4d814-abb1-4d3c-8bcb-75a129a04ad4